## PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

**Departamentua:** 02 - JASANGARRITASUN DEPARTAMENTUA
**Atala:** 0210 - Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusia
**Programa:** 150 - Klima aldaketa
**Funtzionala:** 172 - Ingurumenaren babesa eta hobekuntza

**Programa mota:**

Finalista

**Misioa:**

GFAren eskumenetatik abiatuta, garapen hipokarbonikorako trantsizioa eta klima-aldaketaren mehatxua murrizten laguntzea, 2050erako Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategia betez. Arintze-helburuei emandako bultzada handiari eusteaz gain, ahaleginak areagotuko dira Gipuzkoako eremu ezberdinak (naturalak, sozio-ekonomikoak, etab.) klima-aldaketaren arrisku eta inpaktuetara egokitzearekin lotura handiena duten helburuetako ekintza bete-betean garatzeko.

**Egoeraren diagnostikoa:**

Gizakiok klima sisteman daukagun eragina nabarmena da eta berotegi efektuko gasen jatorri antropogenikoen isurketak orain arteko altuenak dira. Azken aldaketa klimatikoek giza eta natura sistemetan eragin orokorrak izan dituzte. Europa Batasuneko herrialdeek, besteak beste, konpromiso hau hartu dute: berotegi efektua eragiten duten gasen isurketa % 55 murriztea, 2030. urterako (Europako Itun Berdea). Helburu horiek lortzen lagundu dezaten dei egin zaie tokiko gobernuei. Gipuzkoako Foru Aldundiak dagoeneko abian du Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Gipuzkoa Klima 2050 Estrategia, eta Klima Aldaketaren Gipuzkoako Fundazioa (Naturklima) eratu du estrategia hori gobernantza klimatikoan ezarritako baldintzetan garatzeko laguntza gisa.

GIPUZKOA KLIMA 2050ren 4. Jarraipen Txostenaren arabera, 2020an emisioak aurreko urtean baino % 15,6 gutxiago izan ziren, eta murrizketa metatua oinarrizko mailarekiko % 41,4koa izan zen. Murrizketa hori, neurri handi batean, COVID-2019ren koiunturak baldintzatu zuen arren, Gipuzkoa lortzen ari da estrategiak ezarritako berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko zain jarraitzea, baina inbertitu beharreko ahaleginak lasaitzea ahalbidetuko duen lasaierarik gabe, kontrakoa baizik. 2018-2021 aldian egindako foru-ekintza ebaluatzen duen txosten horren arabera, ekintzen % 82,8 hasita daude, eta batez besteko aurrerapen-maila % 41ekoa da. Estrategia indarrean egon den lehen lau urteetan ezarri izanak emaitza onak eman ditu, eta hori Foru Aldundiko, Naturklimako eta jarduerak hedatzen zuzenean edo zeharka parte hartu duten gainerako erakunde eta kolektiboetako departamentuetako taldeen ahalegin kolektiboari esker izan da, baina guztiz beharrezkoa da ekintza areagotzea.

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Estrategiak ezarritako berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko zain jarraitzen ari da Gipuzkoa, baina inbertitu beharreko ahaleginak lasaitzea ahalbidetuko duen lasaierarik gabe, kontrakoa baizik. Izan ere, guztiz beharrezkoa da ekintza indartzea, bai arintzean, bai egokitzean. Arintzeari dagokionez, estrategikoa da lurraldearen trantsizio energetikorako politiken azelerazioan murgiltzea (1. eta 2. jomugak), bai eta Gipuzkoarako ekonomia zirkularreko estrategia bat landu eta hedatzea ere (6. xedea). Aldi berean, modu integral eta integratuan ekin behar zaie lurraldeko eremu kaltebereten erresilientzia handiagoa lortzeko beharrezkoak diren egokitzapen-neurriei. Klima-aldaketaren aurkako borroka lehen mailako erronka politikoa, instituzionala eta soziala da. Funtsezkoa izango da erakunde barruko eta erakunde arteko oztopoak gaindituko dituzten akordioak eta aliantzak lortzea, bai eta ekoizpen-sektore guztiak eta Gipuzkoako gizarte osoa konpromisoan inplikatzea ere. Naturklima eraikina errealitate bat da dagoeneko, eta, datozen urteetan, funtsezko gunea izango da zerikusia duten eragile guztien topaketarako eta baterako lanerako.

**Nori zuzendua:**

GFA bera, beste erakunde publiko batzuk, enpresak, elkarteak eta herritarrak oro har.

**Programaren estrategia.**

**1. Baliabideak (inputak):**

Bitarteko ekonomiko eta giza baliabide propioak Kanpoko laguntza teknikoa kontratatzea

**2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:**

Azterlanak, txostenak eta planak. Inplikatutako foru- eta udal-politiken jarraipena eta bultzada. Monitorizazioa, bisoreak. Argitalpenak. Lankidetza-hitzarmenak eta dirulaguntzak. Bekak. Kanpainak eta ekitaldiak. Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko proiektuak, obrak eta bestelako jarduerak. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioari egindako ekarpena. Naturklima eraikina mantentzea.

**3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

Emisioak murriztea eta klima-aldaketara egokitzea. Klima-aldaketaren jarraipena eta ondorioak. Lurraldeko politiken lerrokatzea (foralak, udalekoak, pribatuak eta gizarte-ekintza). Behatzeko, koordinatzeko eta errazteko tresnak

**Programaren arau esparrua:**

Lurralde historikoen legea. Toki-erregimenaren Oinarrien Legea. Administrazio-legeri orokorra. Kontratazio araudia. 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. Ley 7/2021 legea, klima aldaketa eta trantsizio energetikoari buruzkoa. Klima Aldaketari Egokitzeko Plan Nazionala 2021-2030. EAEko 2050erako Klima Aldaketaren Estrategia. Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategia 2050. Eragindako politika sektorialen legeria eta plangintza. Europako araudia.

## DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

**Urteko helburua:** Klima Aldaketaren aurkako Borroka Estrategia 2050 sustatzea (2050 Gipuzkoa Klima).

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gipuzkoa Klima 2050 Estrategian jasotako ekintzen betetze maila | Ehunekoa | >= | 34,00 | 37,00 | 40,00 | 25,00 |
| Berotegi efektuko gasen isurpenak Gipuzkoan (tona/urte). | Kopurua | <= | 5.804,00 | 5.538,00 | 5.371,00 | 6.200,00 |

### Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

**1. Jarduketa ildoa:**
Klima aldaketaren eta Gipuzkoa Klima 2050 estrategiaren betetze-mailaren jarraipena egitea.

13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA % 50,00 | 16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 50,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduketa ildoa, guztira** | **58.696,81** | | | **2024/01/01** | **2024/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Adierazleen taula mantentzea (BEGak, klima, inpaktuak, lurraldearen hobekuntza eta praktikak) eta jarraipen- eta ebaluazio-txostenak. | 58.696,81 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |

**2. Jarduketa ildoa:**
Klima-arriskuak eta -inpaktuak aztertzea eta monitorizatzea.

13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA % 100,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduketa ildoa, guztira** | **36.080,30** | | | **2024/01/01** | **2024/12/31** | |
| **2.1 Ekintza**<br>Bero-uhartearen mapa (lurraldekoa eta udalerrikoa) | 36.080,30 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |

**3. Jarduketa ildoa:**

Ekintza planak eta jomugaka definitutako proiektuak bultzatzea: EGOKITZAPENA

13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA % 100,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduketa ildoa, guztira** | **171.129,08** | | | **2024/01/01** | **2024/12/31** | |
| **3.1 Ekintza**<br>Klima-aldaketara egokitzeko ekintza-plana | 85.560,60 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |
| **3.2 Ekintza**<br>Bero-uhartearen efektua murrizteko jarduketak udalerrietan - Aterpe klimatikoak | 40.088,18 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |
| **3.3 Ekintza**<br>Egokitzeko beste ekintza batzuk bultzatzea | 45.480,30 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |

**4. Jarduketa ildoa:**

Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioa eta Naturklima egoitza garatzea.

13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA % 50,00 — 16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 30,00 — 17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA % 20,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduketa ildoa, guztira** | **1.101.918,21** | | | **2024/01/01** | **2024/12/31** | |
| **4.1 Ekintza**<br>Fundazioari egindako ekarpenak | 920.278,06 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |
| **4.2 Ekintza**<br>Naturklima egoitza mantentzea eta hobetzea | 181.640,15 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |

**5. Jarduketa ildoa:**
Klima-aldaketari buruzko hezkuntza eta komunikazioa.

% 52,16

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduketa ildoa, guztira** | **165.864,54** | | | **2024/01/01** | **2024/12/31** | |
| **5.1 Ekintza**<br>Informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak eta -kanpainak | 86.520,45 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |
| **5.2 Ekintza**<br>Klimaren aldeko herritarren batzarrak | 27.896,06 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |
| **5.3 Ekintza**<br>Fundación Alternativas hitzarmena | 51.448,03 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |

**6. Jarduketa ildoa:**
Klima-aldaketaren arloko ikerketa eta berrikuntzarako laguntza

% 100,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduketa ildoa, guztira** | **50.896,06** | | | **2024/01/01** | **2024/12/31** | |
| **6.1 Ekintza**<br>Klima-aldaketaren bekak | 50.896,06 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Txikia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Osasun zerbitzuak jasotzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

150 programaren helburua klima-aldaketaren aurkako borroka da, klima-aldaketaren Gipuzkoako Estrategia gauzatuz. Estrategia horrek genero eraginaren ebaluazioa izan zuen, eta ebaluazio horretan hura osatzen duten 99 ekintzak aztertu ziren, neurriak sartzearen egokitasuna zehazteko, xedapen orokorretan genero eragina ebaluatzeko txostenak egiteko jarraibideak aplikatuz. Azterketa horren ondorioz, estrategiak genero berdintasuna sustatzeko neurriak ditu 41 ekintzatan. Une honetan, neurri horiek benetan betetzen direla egiaztatu behar da, baita horien emaitzak ebaluatu ere, 2023an amaituko den estrategiaren berrikuspenak kontuan izateko.

## HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Programa honen ekintzak zuzenduko dira, alde batetik klima aldaketa arintzera eta haren ondorioetara egokitzera eta bestetik, kontzientziaziotarako tresnak eta kanpainak egitera. Beraz, zerbitzu hizkuntza atala landuko da bereziki. Bestalde, enpresen kontratazioetan  hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta haiek betetzen diren jarraipena egingo da.

| Kategoria | Nola |
|---|---|
| **2.- Lan hizkuntza** | **Fundazioarekiko lankidetza teknikoan euskararen erabilera lehenetsiko da.** |
| **8.- Kontratazio administratiboak eta diru laguntzak** | **Adierazleetarako datuak lortzeko azterlanak egiten dituzten enpresen lizitazioetan eta kontratuetan hizkuntza-irizpideak sartuko dira.** |
| | **Azterketa egiten dituzten enpresen lizitazioetan eta kontratuetan hizkuntza-irizpideak sartuko dira.** |
| | **Azterketa egiten dituzten enpresen lizitazioetan eta kontratuetan hizkuntza-irizpideak sartuko dira.** |
| | **Lanen kontratazioetan hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta horien aplikazioaren jarraipena egingo da** |
| | **Beka oinarrietan hizkuntza-irizpideak sartuko dira.** |
| | **Lanen kontratazioetan hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta horien aplikazioaren jarraipena egingo da** |
| **9.- Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak** | **Kanpainaren iragarki ofizialak eta publizitate-ekintzak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, eta jatorriz eta lehentasunez euskaraz sortuko dira.** |
| | **Kanpainaren iragarki ofizialak eta publizitate-ekintzak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, eta jatorriz eta lehentasunez euskaraz sortuko dira.** |

## GJH

**Beharraren deskribapen xehatua:**

150 Programak zuzeneko ekarpena egiten dio 13. GJHari (KLIMAREN ALDEKO EKINTZA), nahiz eta bere ekintzek beste GJH batzuen xede asko lortzen laguntzen duten.

**Kuantifikazioa:** 1.505.240,91 ( % 96,52 )

## Programari lotutako GJH zerrenda

| GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|
| 13-Klimaren aldeko ekintzak<br><br>Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko (Aintzat hartuta Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena klima aldaketari mundu mailan erantzuteko gobernuen arteko eta nazioarteko foroa nagusia dela). | **924.933,40** | |
| **Helbubura** 13.1 - Klimarekin eta hondamendi naturalekin lotutako arriskuekiko erresilientzia eta horietara egokitzeko ahalmena sendotzea herrialde guztietan | 121.644,84 | |
| **Jarduketa ildoak** | | |
| Klima-arriskuak eta -inpaktuak aztertzea eta monitorizatzea. | 36.080,30 | |
| Ekintza planak eta jomugaka definitutako proiektuak bultzatzea: EGOKITZAPENA | 85.564,54 | |
| **Helbubura** 13.2 - Klima-aldaketarekin lotutako neurriak sartzea politika, estrategia eta plan nazionaletan | 92.172,79 | |
| **Jarduketa ildoak** | | |
| Klima aldaketaren eta Gipuzkoa Klima 2050 estrategiaren betetze-mailaren jarraipena egitea. | 29.348,40 | |
| Ekintza planak eta jomugaka definitutako proiektuak bultzatzea: EGOKITZAPENA | 62.824,39 | |
| **Helbubura** 13.3 - Hezkuntza, sentsibilizazioa eta giza eta erakunde-gaitasuna hobetzea klima aldaketa arintzeko, hartara egokitzeko, ondorioak murrizteko eta alerta goiztiarra izateko. | 711.115,76 | |
| **Jarduketa ildoak** | | |
| Ekintza planak eta jomugaka definitutako proiektuak bultzatzea: EGOKITZAPENA | 22.740,15 | |
| Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioa eta Naturklima egoitza garatzea. | 550.959,10 | |
| Klima-aldaketari buruzko hezkuntza eta komunikazioa. | 86.520,45 | |
| Klima-aldaketaren arloko ikerketa eta berrikuntzarako laguntza | 50.896,06 | |
| 16-Bakea, justitzia eta instituzio sendoak<br><br>Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan. | **359.923,87** | |

| GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak | | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|---|
| **Helbubura** | 16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan | 359.923,87 | |
| | **Jarduketa ildoak** | | |
| | Klima aldaketaren eta Gipuzkoa Klima 2050 estrategiaren betetze-mailaren jarraipena egitea. | 29.348,40 | |
| | Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioa eta Naturklima egoitza garatzea. | 330.575,46 | |
| 17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA | 17-Helburuak lortzeko aliantza<br><br>Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea. | **220.383,64** | |
| **Helbubura** | 17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz. | 220.383,64 | |
| | **Jarduketa ildoak** | | |
| | Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioa eta Naturklima egoitza garatzea. | 220.383,64 | |
| **Guztira** | | **1.505.240,91** | |

## PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

| Gastuen kapituluak / Capítulos gastos | 2023 | 2024 | Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 eta hurrengoak/ 2028 y siguientes | Guztira / Total |
| 1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL | 247.319,00 | 144.803,00 | | | | | |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | 275.000,00 | 274.400,00 | | | | | |
| 3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 1.240.382,00 | 940.382,00 | | | | | |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes** | **1.762.701,00** | **1.359.585,00** | | | | | |
| 6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES | 2.741.138,00 | 150.000,00 | | | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | 125.000,00 | 75.000,00 | | | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital** | **2.866.138,00** | **225.000,00** | | | | | |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras** | | | | | | | |
| **Guztira / Total** | **4.628.839,00** | **1.584.585,00** | | | | | |

| Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos | Ordainketa kredituak / Créditos de pago | | Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros | | Guztira / Total | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo |
| 1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL | | 144.803,00 | | | | 144.803,00 |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | | 274.400,00 | | | | 274.400,00 |
| 3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES | | 940.382,00 | | | | 940.382,00 |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes** | | **1.359.585,00** | | | | **1.359.585,00** |
| 6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES | | 150.000,00 | | | | 150.000,00 |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | 75.000,00 | | | | 75.000,00 |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital** | | **225.000,00** | | | | **225.000,00** |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras** | | | | | | |
| **Guztira / Total** | | **1.584.585,00** | | | | **1.584.585,00** |